



# KASILDA

BUKATZEN EZ DEN SUA

Aurkezten dugun ikuskizunak emakumea dauka ardatz moduan. Alde batetik ezagutzera eman nahi dugun pertsonaia historikoak bere bizitza emakume borrokara eta borroka sozialetara dedikatu zuelako. Eta bestetik lantaldearen gehiengoa emakumeek osotzen dutelako.

Guda zibila orain dela oso gutxi gertatu zen eta jadanik ahazten hasiak gara. Gero eta gutxiago dira historiaren kapitulu latz hura bizi izan zutenak, eta datozen belaunaldiak horren testigantzarik gabe haziko dira. Guk daukagu beraz kontaketa horren erantzukizuna. Gu gara memoria historikoaren gotorle.

Euskarazko antzerkiak gizartearen merezi duen lekua hartzea da gure erronka. Publikoaren fideltasunaren bila, euskarazko antzerki, sakon, poetiko, eder eta dibertigarria da gure apustua.



**KASILDA**

BUKATZEN EZ DEN SUA

## ZUZENDARITZA ETA DRAMATURGIA

Saioa Iribarren

## ANTZEZLEAK

Leire Orbe

Aiora Sedano

Ander Basaldua

## ARGIZTAPENA

LOVEO (Miriam Ubanet)

## JANTZIAK

Altrapo Lab (Zaloe Basaldua)

## MUSIKA

Trakamatraka (Jon Urrutia)

## ESPAZIO ESZENIKOA

Ander Basaldua

## PROMOZIO BIDEOA

Zazpi T'erdí

## EKOIZPENA

Goitibera

## BANAKETA

Solobe Art (Dinora Mega)



## SINOPSISIA

*Helburu zintzo bati jarraituz goretsi zenuen lurra.*

*Uzkurtu barik xukatuz beti itotzen gaituen ura.*

*Ozenki zabaldu zenuen askatasunaren haizea.*

*Jakin ezazu: Andra, zu zara bukatzen ez den sua.*

Kasilda Hernaez Vargas emakume iraultzaile euskaldunak, guda zibilean eta bere bizitza osoan zehar ideia libertarioen eta bizimodu natural baten alde borrokatu zuen.

Antzezlan honetan bere bizipenetatik bidaiatuko dugu sentimendu hori jarraitzera bultzatu zuena bilatuz.



**KASILDA**  
BUKATZEN EZ DEN SUA

## DRAMATURGIA

Emanaldiak aurrera joan ahala plano ezberdinak tartekatuko dira:

**Kasildaren bizitza kontatzen duen plano:** Kasilda emakumeen lantegi batean greba egiteagatik atxilotu zuten. Zurriola hondartzan nudismoa egiteagatik ezaguna izan zen. 1934ko urriko greba iraultzailean 29 urteko kartzela zigorra ezarri zioten. Donostia faxisten aurka defendatu zuen. Fronteko lehenengo ilaran borrokatu zuen. Pirinioetan barrena Frantziako muga pasa zuen eta kontzentrazio esparruetan egon zen. Bordelera joan zen bizitzera eta bere etxea frankismoaren eta nazismoaren aurkako erresistentziaren gune izan zen, "euskal kontsulatua" bezala ezaguna izan zen. Baina historiaz harago istorioari emango zaio garrantzia, Kasildaren izaera ezagutzera emango digun istorioa.

**Narratzaileen plano:** Pertsonaietatik irteten direnean Kasildaren istorioaren inguruan galderak eginez, datu historikoak emanez edota euren arteko harremanak zein euren pentsamendu sakonak agerian utziz.


**Plano onirikoa:** Zenbait kasutan errealitatetik distantzia handiagoa hartuko dugu eszenak eskatzen duen trataera poetiko eta abstraktuagoa garatzeko.



## ESZENARATZEA

Gorputza, espazioa, mugimendua eta akzioa abiapuntutzat hartuz landuko dugu antzezlan, antzerki fisikoak eskaintzen dizkigun baliabideak uztartuz (koru lana, pantomima, zuzeneko musika eta soinu efektuak...). Plano onirikoari trataera abstraktuagoa emango zaio eta Kasildaren bizitzaren eszenak ordea melodrama-ren lengoaiaz landuko dira.

Momentu gogorrak taularatuko diren arren (guda zibila, errefuxiatuen esparruak...), partaideen klun formakuntza kontuan izanda eta gure aurreko lanen ildotik, umoreak ere presentzia handia izango du antzezlanean. Drama jasangarriagoa eginez, baina dagokion garrantzia kendu barik.



**KASILDA**  
BUKATZEN EZ DEN SUA

## ESPASIO ESZENIKOA

Espazioarekin jolasteko aukera ematen duen eszenografia abstraktua planteatzen da. Tamaina ezberdinetako hamaika elementuez osatua dago. Aktoreek era poetiko batean edo "eguneroko" eszenen barnean integraturik mugituko dituzte eta publikoak aldaketaz jabetu barik espazio ezberdinetatik bidaiatuko du (ziega bat, barrikadak, trena, frontea...).



**KASILDA**  
BUKATZEN EZ DEN SUA

**IRAUPENA**

65'

**PUBLIKO MOTA**

Helduak (12 urtetik gorakoak)

**ESTEKAK** (sakatu info gehiagorako)

[Rider teknikoa](#)

[Promozio bideoa](#)

[Argazkiak](#)

[Informazio gehigarria](#)



**HARREMANA**

[Goitibera](#)

Saioa Iribarren Muñoz  
info.goitibera@gmail.com

653 104 296

Ander Basaldua Castellanos  
cia.goitibera@gmail.com

665 732 307

**BANAKETA**

[Solobe Art](#)

Dinora Mega Mannocci  
info@solobeart.com

690 078 725

**ESKERRAK**

Martin Sansinenea, Luis Jimenez de Aberasturi, Karlos Almorza,  
Euskadiko Filmatagia, Nafarroako Errege Artxibo Nagusia, Kurtzio Kultur Etxea

**KASILDA**

BUKATZEN EZ DEN SUA



# KASILDA

## BUKATZEN EZ DEN SUA



ARTIÑANO ETXEA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA



[www.goitibera.info](http://www.goitibera.info)